

**SESSION 2007**

**BACCALAURÉAT GÉNÉRAL**

**SÉRIES L et S**

**ÉPREUVE ÉCRITE**

**DE LANGUE VIVANTE II**

**BASQUE**

**L'USAGE DES CALCULATRICES EST INTERDIT**

**Il devra être composé, au choix, sur l'une des trois langues du sujet.**

<b>SÉRIE</b>	<b>COEF</b>	<b>DURÉE</b>
<b>L</b>	<b>4</b>	<b>3 heures</b>
<b>S</b>	<b>2</b>	<b>2 heures</b>

**BARÈME DE NOTATION**

**COMPRÉHENSION : 10 points**

**EXPRESSION : 10 points**

## Haur Garaiak

**Koldo Izagirrek** : Altzan jaio nintzen 1953 an eta Luis María jarri zidaten izena. Luis María Izagirre Urreaga naiz, beraz. Hala ere, nik neure burua pasaitartzat lehen ilusioak, han egin nituen lagunak, hangoa naiz.

5 Gu Pasaiara baino, Pasaiako portura etorri ginen, Pasaiako moila industrialera. Aita elektrikaria zelako eta han behar zutelako eman zioten etxe bat, beti ere eguneko ordu guztietan egon zedin prest edozein matxura konpontzeko. Oso ona zen bere lanean.

10 Horrek bakardadea ekarri zion ume nintzen honi, han ez baitzegoen barku, merkantzia eta langileria besterik. Horrek barruraka eragingo zidan noski. Nik amets egiten nuen marinel-pirata haiek ikusita : aleman belarritakodunak, finlandiar edaleak, amerikano beltzak...

15 Ez dakit zehatz nondik datorkidan idazteko zaletasuna. Asko izango dira faktoreak, seguruenik. Gogoan dut portuko etxe kontsignatarioek agendak argitaratzen zituztela eta urtero oparitzen zizkidatela. Niretzat "diarioak" (eguneroko zerak edo gora beherak, biltzekoak) oso gauza arruntak izan dira. Boligrafo estu bat edukitzen zuten lotua. Agenda haien orriek ertz doratuak edukitzen zituzten, eta amaieran itsas seinaleak eta banderak zeuzkaten. Oso gauza erakargarria niretzat liburu-objektu bezala.

20 Anaia zaharrago bat daukat, eta haren Salgari bilduma guztia irakurri nuen. Bederatzi urteko aldea daukagu eta bazuen liburutegi polit bat. Idatzi ere egiten zuen, lehiaketa garrantzizko bat irabazi zuen gaztelaniaz, eta oso marrazkilari ona da, utzi samartua daukan arren.

25 Orain horrelako azterketa psikoanalitiko bat eginda, atera liteke agian anaiaren emulazioz naizela ni idazle, izan ere bera ona zen bezain txarra nintzen ni ikasketetan.

**Hasier Etxeberriak** : Lagunik gabe eta portu batean... biografia asmatu bat eman lezake zureak.

30 **Koldo Izagirrek** : Ez naiz asmatzen ari ordea. Bakardade doratu batean bizi izan nintzela uste dut, barkuz, marinelez eta langilez inguratua... Kaia jostailutegi handi bat zen : gatza, pirita, kok ikatza, burdina minerala, fosfatoa, txatarra, paper pasta fardoetako gutun-azal ingelesak zigilu eta guzti, txalupak...

35 Bagoietan sartzen nintzen, lokomotoran eramaten ninduten, estekariei laguntzen niela uste nuen, traktoreak arrankatzen uzten zidaten... Maskara hartu eta burdin piezei soldadura puntuak ematen ere uzten zidaten, elektrodoarekin. Horrek guztiak halako azpi erromantiko bat utzi dit, eta langileriarekiko atxikimendu handi bat. Futurismoa bizi nuela esan lirateke.

Bost idazle, Hasier Etxeberria ; "Koldo Izagirrerekin berbetan", 2002, 75-76. orr.

BACCALAUREAT GENERAL			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2007
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE (Batua)</b>
7BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 1/2

**I- ULERMENA (10 PUNTU)**

- 1- Zer dela-eta etorri ziren Izagirre-Urreagatarrak Pasaiara ? (L 2p ; S 3p)
- 2- Zer eragin zuen portuko giroak Koldo hurraren baitan? Nolaz ? (L 2p ; S 2p)
- 3- Zein dira, Koldoren esanetan, idaztera bultzatu duten faktoreak ? (L 2p ; S 2p)
- 4- Nolako portua irudikatzen ahal da, Koldoren hitzetan oinarrituz ? (L 2p)
- 5- Itzuli frantsesera : "Anaia zaharrago... daukan arren." L. 19 → 22 (L 2p ; S 3p)

*Les candidats de la Série S ne traiteront pas la question n° 4.*

**II- ADIERAZPEN PERTSONALA (10 PUNTU)**

- 1- Alimaleko portu industrial baten bihotzean bizitzeak zer nolako eragina izan lezake, zure ustez, haur baten geroan. (15 lerro inguru) (L 4p)
- 2- Idazle pasaiatarrak "anaiaren emulazioa" edo eragina aipatzen baitu, zuk zer diozu haurride zaharrago batek gazteagoen baitan ukan dezakeen eraginaz ? (15 lerro inguru) (L 6p ; S 10p)

*Les candidats de la Série S ne traiteront pas la question n° 1.*

BACCALAUREAT GENERAL			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2007
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE (Batua)</b>
7BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 2/2

**MARRAKA ARROILATIK**

5 Ixiltarzün horren erditik, doi doia botz batek  
 arantzen züan. Potiko gazte bat kantan ari zen  
 eta botzak üdüri züan Ehüjarretako botxüak jo  
 eta, oihana beheiti lerratzen zela, hantik karrkala  
 heltzeko, azkar eta argi. "Santa Grazi" pastoraletik  
 bildürik zen ahaidea. Bertsetek oihükutzen züen herria  
 miragarri eta maitagarri dela behazale ororentako.

Santa Grazi da ene Herria

Ez bakoitxik ere üdüria.

10 Ütsütürik deiot so egiten,

Ederrena segür edireiten.

Hürrün izana gatik han nago,

Besterik ez beitüt nahiago.

15 Arrotzek düe kanpoz gozatzen

Eta nik barnez maitatzen

Hitz horik bakoitxak berartan erabilten zütüan,

orano kanpoan zagolarik, goxotartzünak

lüzarazten beitzeion aüharitako tenorea.

20 Eramaiten züntüen airez aire egünko bizitzetik  
 hatsarrekoala, herriaren bazter batetik besteala :  
 ametsaren hegalek antsoat erakarten züntüen.

Ametsa, ametsa !

Basabürüko Ipuinak – Libürütik- - Junes Cazenave - Harigile.

- arana = oiharzuna
- antso = gora

BACCALAUREAT GENERAL			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2007
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE (SOULETIN)</b>
7BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 1/2

I- *ULERMENA (10 püntü)*

- 1) Bost erranalditan egizü testu honen llabürpena (L2p ; S 3p)
- 2) Zoin literatür jenerotan sartzen da testu hau? Esplika ezazü (L 2p)
- 3) Testu honen egitüra zer da? Nola antolatürik da ? (L 3p ; S 3p)
- 4) Lehen atalean, zoin zentzü baliatzen dü idazleak, deskribatzeko ? (L 1p ; S 2p)
- 5) Zentzü horren alor lezikalean sartzen diren hamar hitz altxa ezazü “ (L 2p ; S 2p)

**Les candidats de la série S seront dispensés de la question 2 sur le genre littéraire.**

II- *ADIERAZPEN PERTSONALA (10 püntü) :*

- 1) “*Ederrena segur edireiten*” Idazlea bezala hanitxek, beren herria ederrena edireiten düe. Esplikatüko düzü zergatik zure ustez, bakoitxak bere herria hainbeste maite düan. (L 3p)
- 2) “*ametsa, ametsa*” Amets bat egizü eta, erran nola den ametsetan ikusten düzün herria. Hor zinez maite zünüke bizitzea, eta deskribatüko düzü. Zentzü bat beno haboro agertüko da. (L 7p ; S 10p)

**Les candidats de la série S ne traiteront que la deuxième question.**

BACCALAUREAT GENERAL			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2007
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE (SOULETIN)</b>
7BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 2/2

Zeruetako erresuma

5 Maiana Artoiz, aitaren arreba txikiena, Frantxua seme zaharrenaren Baionako apartamentura heldu zen, autobusa Otsabiderako bide-juntan harturik. Emaztea errainarekin garatzen ziren pataska etengabe bez aspertuta zegoen ; Marysek alabaina hutsak eta akatsak baizik ez zizkion aurkitzen, eta bakarretan Jakes

10 semeak, andrearen ildotik, erasiaka erabiltzen zuen. Egia erran Maianak ez zukeen nehoiz horrelako egunerokotasunik asmatu, bere sortetxean berean. Gauetz oheratzen zenean negarrez urtzen zen : senarra galduz geroztik, alta ez zuen hark ere gozoki tratatu, pairatzen zuen egoera tristea iruditzen zitzaion. Goiz batez ordea, askariteko bilduak ziren sukaldeko mahaian, erabaki erraldoia jakinarazi zien :

- Banoa Frantxoarekin bizitzera.
  - Zoazi deabruetan hara, nahi baduzu – erantzun zion Marysek, irri karkaila lotsagabea askatuz.
  - Frantxuak bederen jendeki tratatuko nau! – auhen bat askatu zuen, eta
- 15 oiloen bazkatzera abiatu zen, euriz lohitu loiroan jadanik puru-puruka aditzen zela.

Hortik aurrera, Marysek ez zion hitzik luzatu eta Jakes haren soakoari ihes zebilkion, Maianak halatan, bospasei egun pasatu zituen puskila apurrak apailatzen, Frantxuari telefonoz deitu ondoan.

20 Frantxua halaber ez zen sobera bero amaren errezebitzeko. Apartamentuaren txikitasuna azpimarratu zuen, lan-orduen nekea eta bakardade premia. Baina haurretik mutikoak bihotz ona zuen eta, hondarrean amore emanez, amaren galdea onartzea besterik ez zitzaion geratu. Frantxuaren duda eta zalantzek Maianarengan izua eragin zuten : noekin bada jardungo zen, nehork ez

25 baldin bazuen bere konpainiarik maite. Ala Etxepareko Janinaren maneran, kantonamenduko hiriburuko zahar egoitzara jo behar zuen? Ez zekien zer eta nola egin. Arimaren zokoan hargatik semearen baiezkoko txepelaren oihartzuna zetzikan, amodiozko seinale ahul. Frantxuari segurtatu zion epe laburrerako baizik ez zela etortzen, ezin-bizia zaukala, errainak gaizki maneiatzen zuela eta laster bere apartamentua aloka zezakeela Baionan, berdin zitzaiolako azkenean hirian edo

30 baserrian, bake apurra dastatzen zuen ber. Baldintza horiek guztiak entzunik baiezkoa eman zion Frantxuak unean uneko aterabidea zela berretsiz goraki.

Zeruetako erresuma : ltxaro BORDA.

*Hiztegia : erraina : semearen emaztea, Txepel : ahul, beldurti, berretsi : baieztatu.*

BACCALAUREAT GENERAL			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2007
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE (Navarro Labourdin)</b>
7BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 1/2

Zeruetako erresuma : Itxaro BORDA

galdeak

I- Ulermena

*Les candidats de la série S traiteront les questions 1, 5, 6, 7*

- 1) Zergatik Maianak erabakitzen du etxetik joatea? 1.5 p. L / 2 p. S
- 2) Zer orroitzapen du senarraz ? 1 p. L
- 3) Nolakoa agertzen zaigu Maryse erraina ? 1 p. L
- 4) Nolako giroa da etxe hortan ? 1.5 p. L
- 5) Zein estakuru asmatzen du Frantxuak hastapenean amaren ez errezebitzeko ?  
2 p. L / 3 p. S
- 6) Nora ez du joan nahi Maianak ? 1 p. L / 2 p. S
- 7) Zein argumentu emaiten du Maianak Frantxuak onar dezan bere etxera ?  
2 p. L / 3 p. S

II- Adierazpen pertsonala :

*Les candidats de la série S ne traiteront que la 2<sup>ème</sup> question.*

- 1) "mutikoak bihotz ona zuen eta, hondarrean amore emanaz, amaren galdea onartzea besterik ez zitzaion geratu" dio idazleak. Gertatu ote zaizu erabaki baten hartzea norbaiti plazer egiteko ? 3 p. L
- 2) Frantxuak bezala, asko jendeak bakarrik nahiago dute bizi. Zure iduriko zein dira arrazoinak ? 7 p. L / 10 p. S.

BACCALAUREAT GENERAL			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2007
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE (Navarro Labourdin)</b>
7BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 2/2